

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2008	R5/2014	2014/10/31	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Gatazka ez onartzea

Ebazpena: R 5/2014

Espedientea: 28/2008

Vitoria/Gasteiz, 2014ko urriaren 31.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka 1. ERAKUNDEA erakundearen (IFZ ---1) 2002ko ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zergatik Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokion eragiketa-bolumena finkatzearen inguruan planteatutako gatazkari buruzkoa. Gatazka Arbitraje Batzorde honek izapidetzen du 28/2008 espediente-zenbakiarekin, eta Javier Muguruza Arresek dihardu txostengile gisa.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako foru-diputatuaren 2008ko maiatzaren 9ko idazki bidez planteatu zen, eta 2008ko maiatzaren 13an sartu zen Arbitraje Batzorde honen Erregistroan. Idazkiarekin batera, Diputatuen Kontseiluak 2008ko maiatzaren 6an gatazka planteatzeko hartutako erabakia, eta Foru Aldundiak gai honetan izapidetutako administrazio-espedientea aurkeztu zituen.

2. Espedientetik, honako gertakari hauek ondoriozta daitezke:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2008	R5/2014	2014/10/31	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Gatazka ez onartzea

- 1. ERAKUNDEAK (IFZ: ---1) ("1. ERAKUNDEA" edo "erakundea" aurrerantzean) Madrilen du zerga-egoitza, eta BEZari lotutako eragiketak egiten ditu erregimen komuneko lurraldean zein Gipuzkoako lurraldean. Zerga hori, eragiketa-bolumenaren arabera, bi administrazioetan ordaintzen du.

- 2005eko apirilaren 25ean, 1. ERAKUNDEAK 2000-2004 aldiko ekitaldietan ordaindutako BEZari buruzko txosten bat egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ikuskaritzak. Txosten horretan ondorioztatzen zuen erakundeak gasolina-zerbitzuguneetan egindako erregai-salmentetan zerga-egitatea gauzatzeko lekua finkatzeko erabili zuen irizpidea okerra zela eta Gipuzkoari zegokion eragiketa-bolumenaren ehunekoak oker finkatzea zekarrela. Txostenak proposatzen zuen ZAEARI eskatzea, administrazio eskuduna zelako, zegokion erregularizazioa egiteko eta 1. ERAKUNDEAREN 2000, 2001, 2002, 2003 eta 2004ko BEZAREN likidazioetan zegokion eragiketa-bolumenaren ehunekoaren bidezko zen zuzenketatik eratorritako kopuruak Gipuzkoako Aldundiari ordaintzeko.

- Txosten hori kontuan izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiko ikuskaritzako zuzendariordeak, 2005eko maiatzaren 24an, ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualde ikuskatzaileari idatzi bat bidali zion, bertan 1. ZENBATEKOA euroko kopurua erreklamatu, 1. ERAKUNDEAK 2000tik 2004ra arteko ekitaldietako BEZarengatik egindako bidegabeko diru-sarreraren kontzeptu gisa.

- 2008ko martxoaren 10ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko ikuskaritzak beste txosten bat egin zuen, eta bertan adierazi zuen, ZAEARI 2005ean planteatu zion Gipuzkoari egotzi beharreko eragiketa-bolumena aldatzeko proposamenari dagokionez, bere desadostasuna "guztizko eragiketa-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2008	R5/2014	2014/10/31	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Gatazka ez onartzea

bolumenaren" zenbatekoan oinarritzen zela. Eta azaltzen zuenez, ZAEAn ikuskaritzak 1. ERAKUNDEAri BEZari lotutako ikuskapen-aktak ireki zizkiola jakinik, 2000ko eta 2001eko ekitaldiengatik, guztizko eragiketa-bolumena aldatuz eta ondorioz Gipuzkoari zegokion bolumena aldatuz, Gipuzkoak 2000. eta 2001. urteei lotuta zuen pretentsioa indargabetu egiten zen, ZAEAk egindako erregularizazioa ontzat emanaz. 2002, 2003 eta 2004. urteei dagokienez, Gipuzkoako ikuskaritzaren txostenak soilik adierazten zuen ZAEAk jakinarazi ziola 2003. eta 2004. urteei zegokienez ikuskapen-jardun berriak hasi zituela, eta ZAEAk uste zuela 2002ko ekitaldia preskribatuta zegoela eta ez zela bidezkoa ikuskapen-jardunik egitea.

- Txosten hori oinarritzat hartuz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatuak 2008ko martxoaren 13an Foru Agindu bat eman zuen, bertan erabakiz Estatuko Administrazioari eskatuko zitzaiola 1. ERAKUNDEAK 2002ko ekitaldiko BEZaren kontzeptupean administrazio horretan oker sartutako 2. ZENBATEKOA euro kobratzeko eskumenari dagokionez inhibitzeko, Gipuzkoan egin zen eragiketa-bolumenaren kalkulu okerraren ondorioz:

- ZAEAri inhibitzeko errekerimendua igorri ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari bereziak honako hau erantzun zuen 2008ko apirilaren 29an: "Foru Ogasunak beretzat eskatzen duen eskumenaren xede den jarduna ZAEAri dagokio; nolana ere, haren proposamena Agentziaren Zerbitzu Orokorrei igorri zaie, Foru Ogasunen akta bakarrei eta zerga-kontrolari buruzko Erabakietan aurreikusitako moduan izapide dadin".

- Erantzun hori 2008ko maiatzaren 6an jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta egun horretan bertan, Arbitraje Batzordean Gatazka

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2008	R5/2014	2014/10/31	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Gatazka ez onartzea

aurkeztea erabaki zuen Diputatuen Kontseiluak (2008ko maiatzaren 13an sartu zen Arbitraje Batzordean).

3. Arbitraje Batzordeak izapidetzeko onartu zuen gatazka 2008ko irailaren 12an.

4. ZAEAk alegazioak aurkeztu zituen zuzendari nagusiaren 2008ko urriaren 30eko idazki bidez, eta 2008ko azaroaren 4an erregistratu zen Arbitraje Batzorde honetan. Idazki horretan Arbitraje Batzordeari eskatzen dio, azaltzen dituen aurrekarien eta zuzenbide-oinarrien indarrez, gatazkaren ez-onargarritasuna deklaratzeko horretan aditzeko eskumenik ez duelako, Ekonomia Itunaren 66. artikulua Arbitraje Batzordeari esleitutako gaietako bakar bati ere desadostasunik ez dagoelako administrazioen artean, eta subsidiarioki, administrazio bakoitzari esleitu beharreko bolumenaren ehunekoa ezartzeko eskumena duen administrazioa ZAEA dela deklaratzeko.

ZAEAk bere alegazio-idazkiarekin batera igorritako espedientetik, honako gertakari hauek ondoriozta daitezke:

- 2004ko uztailaren 9an, ZAEAREN ikuskaritzak 1. ERAKUNDEAREN 2000ko eta 2001eko ekitaldiei dagozkien BEZA egiaztatze jardunak hasi zituen, eta 2006ko martxoaren 21eko adostasun-aktekin amaitu ziren. Akta horiei jarraiki Gipuzkoako Lurralde Historikoaren tributazio-ehunekoa aldatu zen, eta 2000. urtean erakundeak aitortutako 1. %tik 2. %ra igaro zen (Gipuzkoako Aldundiak ZAEARI erreklamatzeko zion ehunekoa 3.a izanik), eta 2001. urtean erakundeak aitortutako 4. %tik 5. %ra igaro zen (Gipuzkoako Aldundiak ZAEARI erreklamatzeko zion ehunekoa 6.a izanik).

- 2008ko ekainaren 9an eta 2008ko ekainaren 26an, ZAEAKO 2. zk. Ikuskaritza Ekipo Nazionalerako buruak txosten bana jaulki zituen,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2008	R5/2014	2014/10/31	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Gatazka ez onartzea

Gipuzkoako Foru Aldundiak ZAEARI bidalitako inhibizio-eskaeraren ondoriozkoak, honako hau adieraziz: lehenengoan, 1. ERAKUNDEAREN 2002ko BEZARI lotutako ikuskapen-jardunaren bidegabekotasuna, ZAEAREN egiaztapenerako eskubidea preskribatuta zegoelako; eta bigarrenean, 1. ERAKUNDEAREN 2002tik 2005era arteko Sozietateen gaineko Zergari eta 2003-4-1etik 2005era arteko BEZARI lotuta ikuskapen-jarduna hasi denez gero, esparru horretan 2002ko ekitaldiari zegokion Sozietateen gaineko Zergari dagozkion tributazio-koefizienteak egiaztatuko zirela, eta "informatzeko eragin soilarekin, aurrekoak arazteko ahalegina egingo da 2002ko ekitaldiko BEZARI egokitzeko".

5. Espedientea jakinarazteko izapidean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta ZAEAK alegazioak aurkeztu zituzten. Lehenak Ogasun eta Finantzetako foru-diputatuaren 2009ko apirilaren 24ko idazki bidez aurkeztu zituen (idazkia egun berean erregistratu zen Arbitraje Batzordean). ZAEAKo zuzendari nagusiak 2009ko apirilaren 23ko data zuen eta Arbitraje Batzordean hurrengo egunean sartu zen idazki bat aurkeztu zuen.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bidezkoa da ZAEAK gatazka ez onartzeari buruz planteatutako alegazioa aztertzea.

ZAEAK adierazi duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako gatazkaren inguruko arazoa ez dago Ekonomia Itunaren 66. artikulua eta abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduaren 3. artikulua Arbitraje Batzordeari esleitzen dizkioten eskumenen eremuan sartuta.

Adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundia ez datorrela bat zergapekoak 2002ko BEZagatiko autolikidazioan egin duen eragiketa-bolumenaren lurralde-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2008	R5/2014	2014/10/31	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Gatazka ez onartzea

egozpenarekin, ez ordea ZAEAk ezarri ahal izan duenarekin, erakunde horrek ez duelako gaiari buruz ezer adierazteko aukerarik izan, 2002ko ekitaldiari dagokion eragiketa-bolumenaren ehunekoaren egiaztapena geldiarazita dagoelako gatazka honen planteamenduaren ondorioz. Eta, ondorioz, ez dagoela Administrazioen arteko eztabaidarik Arbitraje batzordeari esleitutako gaiiei dagokienez.

Hori hala izanik, aztergai dugun funtsezko gaiari dagokionez, 1. ERAKUNDEAren 2002ko BEZan Gipuzkoari dagokion negozio-bolumenaren ehunekoaren ezarpenarekin zerikusia duena, argi dago Arbitraje Batzordeak ezingo zuela konpondu hura ezartzeko irizpideak finkatuz, bi administrazioetatik bakar batek ere ez duelako argudiorik aurkeztu hori egin ahal izateko.

Gainera, egia da administrazioen artean desadostasunik ere ez dagoela, ZAEAA baita eskumena duen bakarra 1. ERAKUNDEAren 2002ko ekitaldiko BEZaren eragiketa-bolumena egiaztatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ZAEARI inhibitzeko eskatu zizkion termino eztabaidagarri zehatzez haraindi, orduan zegoena, gatazka planteatu zen unean, eta azken batean hura planteatzera bultzatu zuena, ZAEAren ekimen bat zen, 1. ERAKUNDEAren 2002ko ekitaldiko BEZan eragiketa-bolumena egiaztatzeko eskumena zuen administrazioa izanik, eta frogatuta zeuden bi egitate: lehenik, 2002aren aurreko ekitaldietan, hau da, 2001 eta 2000koetan, ZAEAk berak gorantz zuzendu zuen 1. ERAKUNDEAK Gipuzkoan BEZan autolikidatu zuen eragiketa-bolumenaren ehunekoa, gainera aldundiak berak kalkulatu zuena baino zenbateko handiagoarekin; eta bigarrenik, 5eko maiatzaren 25ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak bere ustez zor zitzaizkion zenbatekoak erreklamatu zizkionean ZAEAren EAEko lurralde-ikuskatzaileari, 1. ERAKUNDEAren 2000, 2001, 2002 eta 2003ko ekitaldietako eragiketa-bolumenaren ezarpen okerra zela medio,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2008	R5/2014	2014/10/31	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Gatazka ez onartzea

ZAEAk dagoeneko hasita zituen 1. ERAKUNDEAren 2000ko eta 2001eko ekitaldietako BEZ egiaztatzeko jardunak, eta 2002ko ekitaldia ere egiaztatzeko eskubidea ez zegoen preskribatuta oraindik. Gaineratu behar da Ekonomia itunaren 66.bi artikulua behartzen duen jarduerarik eza ezin dela muturreraino eramán eta eztabaidan dauden administrazioek planteatu duten gatazka konpontzera bideratutako jardunak egitea eragozteá.

Dena dela, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2. zk. Ikuskaritza Ekipo Nazionaleko buruaren 2008ko ekainaren 26ko txostenaren ondorioz alegatutakoa kontuan izanik, non adierazten zuen informazio-eraginetarako 1. ERAKUNDEAren 2002ko ekitaldiko BEZaren ehunekoak arazten saiatuko zirela, ZAEAk gaineratuz hori ezinezkoa izan dela gatazkaren planteamenduak behartu duen jarduerarik eza kontuan izanik, argi dago Ebazpen honekin alegatu den oztopoa desagertu egiten dela, eta ez dagoela inolako oztoporik 1. ERAKUNDEAK 2002ko ekitaldiko BEZan izan duen eragiketa-bolumena egiaztatzeko.

Tamalez, Gipuzkoako Foru Aldundiak gatazka hain bizkor planteatu zuenez gero, konponbide adiskidetsua aurkitzeko azken ahalegin bat egin gabe, ZAEA 1. ERAKUNDEAren 2002ko ehunekoak berrikusteko prest zegoela ezin izan zuen jakin, informatzeko soilik bazen ere.

Azken finean, funtsezko gaiari dagokionez Arbitraje Batzordeak ezin du erabaki ZAEAk 1. ERAKUNDEAren 2002ko BEZan egindako eragiketa-bolumenaren ehunekoa egiazta dezala, hura egiteari ez diolako uko egin, eta ezin du ontzat eman Gipuzkoako Foru Aldundiak bere kabuz proposatu duen zuzenketa, hark onartzen duelako ez duela eskumena 1. ERAKUNDEAren 2002ko BEZaren eragiketa-bolumena egiaztatzeko.

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2008	R5/2014	2014/10/31	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Gatazka ez onartzea

ERABAKI DU

Gatazka hau ez onartzea; era horretan, 1. ERAKUNDEAK 2002ko ekitaldiko BEZari dagokionez Gipuzkoan izan zuen eragiketa-bolumena bidezko ondorioetarako egiaztatzeko ZAEAK adierazitako oztopoa desagertu egingo da.